1 ARIKETA
Lurralde antolakuntza. Hiria-zelula metafora.

hirigintza 1



HiCat liburuko mapa analitikoa

HELBURUAK

Galdera hauen gaineko gogoeta eragin nahi da:
Zergatik daude hiriak dauden tokian ezarriak?
Zein da hirien arteko harremana?

Ariketaren egitasmoak:
1 Euskal Herriko hiri sistemaren azterketa egin
2 Euskal Herriko hiri sistemaren funtzionamendu arrazoiak deskribatu

EGITEKOA

Ariketak 2 zati ditu: alderdi grafikoa eta alderdi idatzia

Helburua ez da gaur eguneko Euskal Herriko mapa irudikatzea, baizik eta bere zenbait elementuen identifikazioa interpretatuz eta aztertuz mapa analitiko bat irudikatzea. Mapa analitikoak abtraktutasuna izan dezake, egoera bat azaltzen du, deskribatze huts batek baino mezu sakonagoa du bere baitan, errealitatea interpretatzen/aztertzen duen heinean.

Aztertu beharrekoa:
Hiri egituraketa biztanle kopuruen arabera
Hirien arteko komunikazio nagusiak
Hirien arteko distantziak
Lurraldearen topografia
Aktibitate ekonomikoa
Balore naturala duten guneen kokaera

Mapa analitikoaz gain, hiri sistemaren funtzionamenduaren inguruko azalpen laburrak emango dira, ikerketaren emaitza gisa.

EMATEA

Urriak 10, praktika klasea bukatzean